

ANOETA ESTADIOA

Hasi dira lanak

Abiatu dituzte Anoeta eraberritzeko lanak. Aurtengo maiatzean hasi zituzten, eta 2019ko urrian amaituta egon beharko dute. Instalazioen jabetza Udalarena izango da, eta Real Sociedad de Fútbol, SAD-ek ordainduko du lanen %70. Trukean, erabilerarako eta ustiaketarako lehentasuna izango du klubak 2067. urtera arte. Alta, azken data hori lanen amaierako kostua kitatzean zehaztuko da.

Finantzaketari dagokionean, %20 handi daitekeen 30 milioi euroko ekarpena egitea onetsi zuen (36 milioitaraino, alegia) Realaren akziodunen batzarrak 2015eko abenduko batzar orokorrean. Eusko Jaurlaritzak hiru epetan banatutako 10 milioi jarriko ditu, eta 4 Gipuzkoako Foru Aldundiak, Estadioko lanek Miniestadioaren hobekuntza edota euskal kirol federazioen egoitzen bateratzea dakartzanez. Lanen lehen hilabeteak igaro ostean lan baldintzen inguruko salaketa bat egin du ELA sindikatuak.

Historia

1993ko abuztuaren 13an inauguratua, Anoetako estadioa zenbait berritze planen erdian egon da XXI. mendearen hasieratik, harmaila bilkorrak ezartzeko lehen saiakera bat barne. José Luis Astiazaran izan zen proposatzen lehena. Izaskun Larzabal arkitektuak 42.400 lagunentzako edukiera (haietatik 9.000, hondoharmailetan) eta lau dorre izango zituen zelai berria proiektatu zuen. Dorreetako bat 17 solairuko hotel batentzat zatekeen. Lanak 2004ko abenduan hasiko lirateke, baina udal-tramitazioak sortutako aurkaritzak (gehien bat, erabilera tertziariora bideratutako metro karratuen kopuruarengatik) proiektuaren zenbait birformulazio ekarri zituen. Astiazaranen amaierak Gipuzkoarena lurperatu zuen.

25 milioi ingururen truke Estadioa berritu eta bere edukiera 40.000-45.000 ikuslerra igotzeko hipotesia plazaratu zuen Maria de la Peñak 2007ko apirilean, baina erakundeak bizi zuen aztoramenak ezerezean utzi zuen asmoa, gerora Anoeta 17 milioi eurotan ero steko Iñaki Badiolak egindako proposamena halaxe utzi zuen gisan. Jokin Aperribayk zuzendutako zuzendaritza kontseiluaren sarrerak bat egin zuen Espainiako eta Portugalgo futbol federazioek 2018ko Munduko Kopa antolatzeko asmoekin, Anoeta eraberritzeko aukera berriz mahai gainean jarritz. 1998an Anoetaren edukiera handitzea ahalbidetu zuen solairu arteko lanen egilea zen Larzabalek lau dorre eraikitzea aurreikusi zuen beste

behin, nahiz eta hamarkada bat lehenago erabilera tertziariorako proposatutako 54.000 metro koadroak 15.000ra murriztu. Errusia aukeratu izanak aukera hau baliogabe utzi zuen.

2014 eta 2015 urteetan heldu ziren Anoeta birmoldatzeko Jokin Aperribayren B eta C planak, baina Hiri Antolaketako Plan Orokorraren aldaketa partzialaren aurka Javier Olaverri abokatuak ezarritako errekursoak izkinetako erabilera tertziarioak ezabatu eta C plana abiatzea ekarri zuen, zeina Realak Anoeta Kiroldegiari eman dion birmoldaketa burutu dezan.

Birmoldaketa

0 eta 4 faseen artean zatitutako bost fase dituzte lanek. Orain artean eskainitako azalpen onena eta osoenaren arabera azalduko ditugu; berau iragan azaroaren 9an eskaini zen Amarako bizilagunekin Anoetan egindako bileran.

0 fasea: bost azpifase barnebildu zituen; gehienak, prestakuntzara bideratutakoak (sarbide berriak eta kanpoko zutabeen zimentazioa). Irailean amaitu zuten.

1 fasea: Hegoaldeko harmaila eraikiko da, eta zelaiko %75ean handituko da. Birmoldaketaren gako den fase hau irailean abiatu zuten eta 12 hilabete iraungo ditu, 2017ko irailetik 2018ko abuztura bitartean:

- Hegoaldeko harmaila zaharraren desmuntaia eta eraisketaren ostean, indusketa (zelaiaren kota berria orain artekoa baino 1,5 metro beherago geratuko da) eta harmaila berriaren zimentazio lanak abiatuko dira. Estalki-harmailaren soto-garaje-zinbria eskemaren arabera burutuko da. Hegoaldeko harmaila 2018ko abuztuan prest egongo da, bere kanpoko inguratze-tapaki eta guzti.
- Hondoko harmaila berriak estalki berria izango du, 2018-2019 sasoirako prest egongo diren zinbria batzuek sostengatua, zeinak bi harmaila nagusietako estalkia handitzea ahalbidetuko duten. Estalkietarako materiala apirilean iritsiko da, eta zinbriak (8 metro zabal, 9 garai eta 100-150 metro luze) 2018ko maiatzaz aintzin jarriko dituzte lurrian; urte bereko uztaierako ezarriko dituzte, 600 tonatako garabiak erabilia.

2 fasea: Bi harmaila nagusietako lanak maiatzaren 14an abiatuko dira (37. jardunaldiko Reala-Leganés partidaren ostean), eta 2018-2019 sasoiaren hasierarako amaituta egon beharko dute:

- Ipar hondo-harmailaren eta Hegoaldeko Tribunaren aurreko zelaiaren kota maiatzaren 14a baino lehen 1,5 metrotan murriztuta egotea espero da.

- Lehiaketa amaitzean gauza bera egingo da soropilarekin eta Tribuna Nagusiaren aurreko eremuarekin, non soropilerako sarbideak dauden egun. 2018ko maiatza eta abuztua artean soropila behin betiko kotan geratuko da, eta alboetako bi harmailen behe-eraztunak handituko dira.
- Ekialdeko Tribunak egun dituen sarbideak desmuntatu eta behin betikoak eraikiko dira alboko zokaloaren gainean.
- Anoetako berriko lau harmailetatik hiru prest egongo dira 2018ko irailean, Ekialdeko Tribunako sarbideez gain.

3 fasea: Iparraldeko hondo-harmailaren eraikuntza. 2018ko urria-2019ko urria:

- Egungo Ipar hondo-harmailaren desmuntua eta eraisketaren ostean, indusketa (zelaiko kota berria egungoa baino 1,5 metro beherago geratuko da), eta harmaila berriaren zimentazioa abiatuko dira. Soto-garaje-estalki (zinbria aurrez ezarriko da)-harmaila eskema jarraituko da.

4 fasea: alboko bi fatxaden tapakia eta Tribuna Nagusiko sarbide berriak. Lanen amaiera da, 2019ko maiatza eta urria artean burutuko dena. Ordurako, bi hondo-harmailek behin-betiko azken itxura izango dute eta Ekialdeko Tribunako egungo sarbideak eraitsita egongo dira. Birmoldaketaren amaieraren aurreikuspena: 2019ko urria.